

## Secretariado Gitano fundazioa



Antonio Machado Kalea, 18, 01010 Gasteiz, Araba

**945 21 37 89**

<https://www.gitanos.org/>

Ijitoen Idazkaritza Fundazioa (FSG) irabazi-asmorik gabeko kulturarteko gizarte-erakundea da, eta Espainiako eta Europako ijito-komunitatea garatzeko zerbitzuak ematen ditu.

Kolektibo kalteberetako pertsonen gizarteratzea eta laneratzea hobetzea da helburua, bereziki emakume ijitoena, aukera-berdintasuna, genero-berdintasuna eta diskriminazio mota ororen aurkako borroka sustatuz, arreta berezia jarriz emakume ijitoek eta genero-indarkeriaren biktimek jasaten duten diskriminazio anizkoitzean.

Calí programa Ijitoen Idazkaritza Fundazioaren programa bat da, emakumeei gizarteratze-eta laneratze-prozesuetan laguntzen diena. Emakume ijitoak dira, kalteberatasun-egoeratik eta enplegarritasun-maila eskasagatik baliabide normalizatuetatik kanpo geratzen direnak.

Cali programatik, parte-hartzaileak enpleguaren eta prestakuntzaren esparruan sustatzen dituzte, batez ere, baina baita hainbat eremutan ere: osasuna, hezkuntza, etxebizitza, ijito-komunitatean genero-berdintasuna sustatuz jardueren bidez.